

A23 - Zer ekarpen egiten die elikagaiei hobekuntza genetiko tradizionalak? Eta nola egiten da?

Horretaz jabetzen ez bagara ere, gaur egun kontsumitzen ditugun elikagai gehienak hobetu egin dira. Hobekuntza horiei esker, elikagaiek gehiago irauten dute baldintza onetan, zapora hobe dute, erraz landatzen dira eta, hori guztia, hobekuntza genetikoari eta bioteknologiari esker lortzen da. Jarduera honetan, patata bat adibide gisa erabiliz, hobekuntza genetiko tradizionala nola funtzionatzen den ikasten da.

Ikasurtea

4. DBH

1. Batxilergoa

2. Batxilergoa

Data

2023ko azaroan 15, 2024ko urtarrila 15, apirila 15 eta maiatza 15.

Lantzen diren irakasgaiak

**Biologia
Teknologia**

Jarduera mota

Ikasgelan aditua

Hizkuntza

Euskara

Irismen geografikoa

**Araba
Bizkaia**

Jarduera ematen duen erakundea

NEIKER

Curriculumaren edukiak

- Zer da hobekuntza genetikoa? Zergaitik da beharrezkoa?
- Zer dira genak? Zein da beraien papera?
- Zer da bioteknologia eta zein da bere ekarpena elikagaien garapenean?
- Nola egiten da patataren hobekuntza genetikoa?

Zer ikasten dute ikasleek?

Jarduera honetan, bioteknologiak eta hobekuntza genetiko tradizionalak elikagaiak hobetzeko duten zeregina ikasten da, etxe guztietan oso ezaguna den elikagai bat ereduizat hartuta: patata.

Horretarako, honako kontzeptu hauek azalduko dira:

- Zer da bioteknologia?
- Bioteknologiaren 11 koloreak, bat erabilera bakoitzeko.
- Bioteknologiaren papera nekazaritza-sektorean.
- NEIKERek bioteknologia erabiltzea nekazaritza-sektoreari laguntzeko.
- Zer den hobekuntza genetikoa eta zergatik den beharrezkoa.
- Hobekuntza genetiko tradizionala + teknika molekularrak.
- Zer da germoplasma banku bat?
- Zer da laborantza aeroponikoa?

Garapena

Ekintza honek bi zati ditu:

- Aurretiko lana: saioa baino aste batzuk lehenago, fitxa bat helaraziko zaie ikasleei, "Landa-koaderno" izenekoa, eta bete egin beharko dute. Landa-lana zientzietan erabiltzen den teknika bat da, eta hipotesia sortzen den ingurunea laborategitik kanpo behatzean datza. Kasu horretan, salmenta-puntu batean (merkatua, fruta-denda, supermerkatua) aurki daitezkeen patatak behatuta lortuko da informazioa.
- Aurrez aurreko hitzaldia ikasgelan: saioan, bioteknologiari eta hobekuntza genetikoari buruzko oinarrizko nozioak ikasiko dituzte modu praktikoan, NEIKER zentro teknologikoak landare-barietateak (kasu honetan patata) hobetzeko egindako lana oinarri hartuta.

Baliabideak

- Ordenagailua eta proiektorea
- Landa koaderno batek behar da jarduera baino egun batzuk lehenago, NEIKERek bidaliko du
- Patata Beltza eta in vitro tarroak eramango ditu NEIKERek